

Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile hautagaien BAREMAZIO/BIRBAREMAZIO EPEA ETA IZEN EMATEA

Gaur, urriak 9, Eibarren Enpresarekin izandako bileran, hezitzaileen baremazio-birmaremazio epeaz eta zerrenda irekieraz hitz egin dugu. Enpresak kudeaketa teknikari eta administrarien zerrenda barematzeko asmorik ez duela adierazi digu.

Beste behin, **STEILAS**ek egindako proposamenak (zonaldeak berrantolatzea, Hezkuntza Laguntza Espezialisten lan esperientzia meritatzea, Gizarte Hezkuntza eta Gizarte Integrazioa ikasketak meritatzea) ez dira onartuak izan.

Haurreskolak Partzuergoan egindako lan esperientzia ofizioz puntuatuko da (0,01 puntu egun bakoitzeko) 2018ko azaroaren 5etik 2019ko urriaren 13ra (barematutako hautagaien kasuan, 342 egun gehienez). Gainontzeko kasuetan, 2019ko urriaren 13ra arteko ibilbide profesional guztia izango da kontutan.

2019/10/11	www.haurreskolak.eus web gunean argitaratuko da deialdia.
2019-10-21/2019-11-4	ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA.
2020-02-14	Behin behineko zerrenda argitaratuko da.
2020-02-17/2020-02-28	ERREKLAMAZIO EPEA.
2020/04/03	BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATUKO DA.
2020/04/06	Behin betiko zerrendaren erabilera.

Deialdia eta eskaera orria **hilaren 11n** argitaratuko dira Haurreskolak Partzuergoko web gunean.

Eskaerak aurkezteko aukerak: *Zuzenean* zerbitzuko bulegoetan, posta ziurtatu bidez edo Haurreskolak Partzuergoko egoitzan asteleheneetik ostegunera 09:00etatik 15:00etara eta ostiraletan 09:00etatik 14:00etara (Otaola Hiribidea 29, Jaizkibel eraikina 1, 20600 Eibar, GIPUZKOA).

Bukatzeko, familiek ordaintzen dituzten kuotak urtero errebisatzeko **STEILAS**ek egindako eskaera Zuzendaritza Batzordeak berriz ere atzera bota du.

Zalantzak izanez gero edo argibide gehiago behar izanez gero, jarri gurekin harremanetan konfiantza osoz.